## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

**6252**

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: «Agindua, 2008ko ekainaren 17koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorrizko Deituraren Arautegia aldatzekoa eta horren testu bategina onestekoa».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuak 24.2.a) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko aginduko dute.

«Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorrizko Deituraren Arautegia aldatzeko eta horren testu bategina onesteko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko ekainaren 17ko Agindua 2008ko uztailaren 29ko EHAAn (143. zk.) argitaratu zen. Agindu horren testuan, aurreko paragrafoan adierazitako moduko hutsak aurkitu direnez, zuzendu egiten dira ondoren:

Aginduari erantsitako Arautegian, «Mahats-bilketa berantiarra» izeneko lehenengo xedapen gehigarriaren 3. puntuan, 19612 orrialdean, honako hau dioen lekuan:

«– Anhidrido sulforosoa, guztira (gehienez): 300 mg/l.»

Honako hau esan behar du:

«– Anhidrido sulforosoa, guztira (gehienez): 260 mg/l.»

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

**6252**

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 17 de junio de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se modifica el Reglamento de la Denominación de Origen «Bizkaiko Txakolina/Txacoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» y se aprueba su texto refundido.

El artículo 24.2.a) del Decreto 155/1993, de 1 de junio, sobre el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Orden de 17 de junio de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se modifica el Reglamento de la Denominación de Origen «Bizkaiko Txakolina/Txacoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» y se aprueba su texto refundido, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 143, de 29 de julio de 2008, se procede a su corrección:

En el punto 3 de la Disposición Adicional Primera «Vendimia Tardía» del Reglamento que figura como anexo a la Orden, en la página 19612, donde dice:

«- Anhídrido sulforoso total (máximo): 300 mg/l.»

Debe decir:

«- Anhídrido sulforoso total (máximo): 260 mg/l.»